



Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, puntu morea Okendon.- Azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean, Euskal Herriko herri eta plaza gehienetan bezala, ekimen berezia egin zuten lasarteoriarrek gurean emakumeek bizi duten egoera salatzen helburuarekin. Kukuka Antzerki eta dantza eskolako talde ezberdinek hiru dantza eskaini zituzten Okendo plazako oholtzan. Ondoren puntu morea irudikatu zuten bertan bildutako herritarrek. Ohiko elkarretaratzea egin beharrean, asteartean Lasarte-Oriako Udalak herritarrek mosaiko bat egitera deitu zituen, hain zuzen, Emakumeen aurkako indarkeriari "aski da" esateko irudia den puntu morea osatzeko. Bertaratutako herritarrei, ehun inguru, kartulina moreak banatu zitzaizkien eta puntu morea irudikatu zuten plazaren erdian azaroaren 25eko egunaren aldarrikapenarekin bat egin eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra azaltzeko. Txalo artean amaitutzat eman zuten astearte arratsaldeko ekitaldi xumea. Aipatu behar da, Udalak bozeramaileen batzordean adierazpen instituzionala onartu zuela ere "Udalak beregaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira".

3 ATERPEA

Aterpearen II. pintxo bidea herriko zortzi tabernen eskutik

Gaur hasi eta igandera bitartean Yolanda taberna, Abend, Trumoi, Buenetxea, Txanpa, Galiza, Arkupe eta Sancho tabernetan aurkituko dute lasarteoriarrek eskaintza berezia: pintxo eta edaria 2,5 eurotan. Iaz bezala, herritarrek pintxorik onena bozkatu ahal izango dute.

4 JOSTUNGINTZA

Euskal Jantzi tradizionalen ikastaro oparoa

Bi hilabetez jantzi tradizional propioak sortzen eta egiten aritu ostean, ikastaroan zehar egindako lana erakutsi zuten atzo ikasleek, Emakumeen Zentroan. Antolatzaileek esan dute "oso ona" izan dela esperientzia, eta datorren urtean ikastaroa errepikatzen asmoa azaldu dute.

5 EUSKARA

Topagunearen 'Euskarak 365 egun' ekimena abian

Euskararen Nazioarteko eguna izango da abenduaren 3a, eta egun horretan bakarrik ez, egunerokoan erabiltzearen garrantzia azpimarratu eta sustatu nahi du Topaguneak, martxan jarri duen #365egun kanpainen bitartez. Ttakunek ere herri mailan landuko du ekimena.

**EUSKARAK
365
EGUN**

euskaltzaleon auzotik
euskararen herrira

www.365egun.eu

**Astelehenean,
abenduaren
1ean,
ez da
TXINTXARRI-rik
argitaratuko.
Herriko
informazio
guztia
txintxarri.eus**

leima
Antenas S.L.

**ANTENA KOLEKTIBO eta
INSTALAZIOA, MANTENUA eta
KONPONKETA**

Zatoz eta galdetu !

Hipodromo 6 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 247034
leimalasarte@euskalnet.net

**ZURE KOMUNITATEA,
DIVIDENDU DIGITALERA
EGOKITZEN DUGU !**

MABEL
Arropa eta osagarriak

**Emakumeen
moda
neurriak:
40tik XXXL-ra**

Hipodromo etorb. 12 • Tel.: 943 325612

Neure kabuz



Mailu Arruti

Kattagorria

Efemerideak guban zauriak direlako, norberak bakarrik minez ospatzen ditugulako. Anariren ahots bereziaren oihartzunak iritsi dira haize epela firin-faran dabilen honetan, orbela lurrean, gaztaina mokotsak, dena nabar kolore.

Kalekumeoi natura irakurtzen ahaztu zaigu. Baina gaur komunikazio bat izan dut Leizaranen paseatzen nabilela. Katagorri bat gurutzatu zait bidean. Ez da gauza handia baina, bai politta!

Begira jarri natzaio eta... begira geratu zait. Bixi-bixi mugitu da. Bere belarritxoak tente, isats gorritza elegantearekin. Berriz begiratu nau, eta arin baino arinago igo da enborrean gora. Begi bistatik galdu dudanean arte. Momentu zoragarria izan da!

Pentsamendu bat sortarazi dit: Kattagorria izan nahi dut. Bizitza bixi-bixi bizi. Aktibo izan, emozio asko sentitzeko. Kattagorriak udazkenean egiten duena egin. Ezkurrak, gaztainak, intxaurrak, usteldutako enborrean gorde. Biltegia ongi hornitu, hotz egiten duenerako.

Berdin egin nahi dut bizitzan zehar sentitutako emozioekin. Nire enborrean gorde. Hortxe eztairik behera bular aldean. Kontutan eduki zerbaitek hunkitzen gaituenean eskua nora botatzen dugun. Bai hortxe. Zulo txo batean, kabi goxo batean bezala, ezkurrak, gaztainak eta intxaurrak bailira, emozio eta oroitzapen asko gorde nahi ditut hotz egiten duenean erabiltzeko eta orekarik ez galtzeko. Kattagorriak bezala.

Zorion agurrak



Leire

Zorionak printzesa, ze polita zara!! Hamar muxu pottolok aitaxo, amatxo eta Iraiaren partetik.



Pau

Izar txikia bat sortu zen gure artean, bi urte egin ditu gure bihotzean! Zorionak-Felicitats! aita eta ama.



Aitor

2 urte dituzu jada, Zorionak bihotza! Mila muxu amatxo eta aita-txoren partez ^_^



Miren

ZORIONAK gure basoko txantxangorri kuttunari!! Muxu handi bat etxekoan partetik.



Gorka

Bon aniverseg! Kuadrilako lagun guztien partez. Parrandak ez dira berdinak zu gabe.



Ane

Zorionak Anetxu! Kuadrilako guztien partez, 22 muxu handi!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- Garaje itxia salgai erdialdean, Zapategi kalean. 14 metro karratu ditu. 22.000 euro. 607 49 16 63 Ariz.
- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza Sean. 600 414 331
- Garaje marra alokatzen dut Urbarten. Merke. 648 61 47 69.
- Tableta salgai. Nevir marka, android 4.1 sistema. GPU 512MB / RAM 4GB. 680 98 35 27
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusian, Maxi Dia inguruan. 60 euro 943 57 59 64
- Umeentzako kotxe kapota Jane Slalom Bainera bat eta Mendira joateko motxila 637 05 63 54

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaintzen, etxean edo kanpoan lan egiteko prest. Badauzkat paperak. 674 59 80 99.
- Pertsona arduratsua eskaitzen da lan egiteko. Esperientzia zabala adinekoen eta gaixoan zainketan. Hasteko prest 680 98 35 27

- Edadeko jendea zaintzeko prest eguneko 24 orduetan. Paperak eta esperientzia. 645 78 72 72.
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia fruta-dendan, pintaketetan, nagusiak zaintzen, nekazaritzan. 609 34 44 28
- Lana bila nagusien zaintzan. Paperak egunean eta esperientziarekin. 602 59 67 35 Jenny
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko prest. 639 41 22 33
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 40 40 15 / 606 66 10 48

Lan-eskaintza

- Urtarriletik maiatzarte Urdaira sagardotegian sukaldarako edo zerbitzari lanetako emakumezko edo gizonezkoak behar dira. 619403691

Bestelakoak

- Pisukide bila nabil. Etxe polita eta argitsua da, zentroan bizi naiz. Hilabetean 300 euro. Pilar 647884278.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Amaia Altuna Fernandez azaroaren 24a.
- Xabier Auzmendi Artech azaroaren 21a.
- Constanza Altamirano Rugama azaroaren 20a.
- Issac Chapa Portero azaroaren 18a.
- Iزارo Mateos Pascual azaroaren 17a.



Heriotzak

- Maria Luisa Arregui Ugalde azaroaren 25ean, 83 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 28**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 363549
- Larunbata, 29**
Gil Kale Nagusia 24 943 361529
- Igandea, 30**
Gil Kale Nagusia 24 943 361529
- Astelehena, 1**
Gil Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteartea, 2**
Acha-Orbea Hipodromo etorbidea 6 943 363549
- Asteazkena, 3**
Urbistondo San Frantzisko 1 943 366567
- Osteguna, 4**
Gandarias-Urbe Iñigo de Loyola 9 943 019521

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Munterri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

GASTRONOMIA

Aterpearen II. pintxo bidea

Zortzi tabernen eskaintza berezia gaurtik

Gaur hasi eta igandera bitartean Aterpea elkar-tearen baitako zortzi tabernekin pintxo bereziak eskainiko dituzte edaria-ekin 2,50 eurotan. Hauei nota ematea proposatzen zaie herritarrei eta pintxo bide honetan parte hartzen duten herritarren artean 100 euroko txekoa zozketatuko da.



Astehenean aurkeztu zuten ekimena eta bertan pintxoetako batzuk erakutsi zituzten.

TXINTXARRI

Iazko bideari jarraiki, astehenean Aterpeko ordezkariek Pablo Barrio alkatearekin batera "II. pintxo bidea" aurkeztu zuten.

Gaur hasi eta asteburu osoan, Aterpea merkatari eta ostalarien elkartean dauden zortzi tabernekin pintxo berezi bat eskainiko dute, "pintxoia eta edaria 2,50 eurotan" eta ondoren, herritarrei aukera emango zaie pintxoak 1etik 10era baloratzen.

Lehiaketan parte hartzen duten herritarren artean ere saria izango da, Aterpeko dendetan gastatzeko 100 euroko txekoa bat zozketatuko dela aipatu zuten.

Alkateak horrelako ekimenei dute garrantzia azpimatu.

rratu nahi izan zuen aurkezpenean. Izan ere, "herri biziago baten aldeko urratsak ematen ari gara. Horrelako ekimenekin lasarteoriarrak herrian geratzea lortzen dugu".

Zortzi pintxo

Yolanda taberna, Abend, Trumoi, Buenetxea, Txanpa, Galiza, Arkupe eta Sancho tabernetan aurkituko dute herritarrek eskaintza berezia; zortzi pintxo aukeran.

Bakoitzak pintxoia eta edaria 2,50 eurotan eskainiko du gaur ostirala 19:00etatik 21:00etara, larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara.

"Eskuorri bat emango zaie bezeroei eta honetan jaso beharko dute pintxo bakoitzaren puntuazioa, taberna bakoitzak bere zigorra jarriko dio bezeroari eta dena osatuta daukanean, honek datu pertsonalekin bete eta zozketan parte hartu ahal izango du".

Iazko ekimenean jende askok parte hartu zuela eta, esperientzia errepikatzea erabaki dute Aterpeko kideek, Ramon Ormazabalak aipatu moduan.

Herritarrei Lasarte-Orian eskaintza nahikoa badagoela erakutsi eta era berean bertan erosi eta kontsumitzea bilatzen du elkar-teak.

Aterpeak herritarrek animatzen ditu asteburuan pintxoaren bidea osatzera.

JAIK

Santo Tomas jaian Okendon postua jartzeko deialdia

Ttakun Kultur Elkar-teak Santo Tomas egunean postua jarri nahi dutenei deialdia luzatzen die. Kontutan hartu eta baloratuko da jendeari harrera euskaraz egitea eta Santo Tomas egunaren filosofiarekin bat egitea, jantziei eta eskaintzari dagokionez. Interesatuak abenduaren 15a baino lehen kultura@ttakun.com-era mezua bidali beharko dute. Honetan erakundearen edo arduradunaren izena jarri beharko da, harremanetarako telefono zenbaki bat eta postuan izango den eskaintza labur azalduta.

Ttakunek eskaera guztiak jasokoponatu eta berehala jarriko da harremanetan eskaera egin duten herritarrekin. Hauen artean, lehentasuna izango dute herriko taldeek.

IKASTAROA

Talo ikastaroa abenduaren 15ean Arrieskalleta elkartean

Santo Tomas eguna dela eta, iaz bezala talo ikastaroa antolatuko du Ttakunek. Abenduaren 15ean izango da Arrieskalleta elkartean eta honetan parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da Ttakunen, kultura@ttakun.com helbidean edo 943 37 14 48 zenbakira deituta. Ikastaro irekia da.

MUSIKA

SuBerrik irteera batekin ospatu zuen Santa Zezilia

SuBerri Akordeoi Taldeak azaroaren 22an Santa Zezilia eguna ospatu zuen txango bereziarekin. Egun-pasa Deba Goieneko eskualdean egin zuten, eta Oñatiko Txokolatearen Museoaz gain, Arrikruzeko kobazuloak eta Arantzazuko Santutegia ere bisitatu zituzten. Ondoren, Arantzazun bertan SuBerriko taldekideek eta bazkideek bazkari ederraz gozatu zuten. Bazkalostean, Peli umoristaren ikuskizunarekin batera eguna ospatzeko topa egin zuten.



GABONAK

Ostadarren Gabonetako loteria salgai

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak Gabonetako loteria 2,50 euroko partizipazioetan salgai ditu: 42871 zenbakiarekin. Ostadarreko bulegoan 18:00etatik 20:00etara eros daiteke, baita Etxezarreta eta Larrañaga harategietan eta Aldatz-Ekua, Insausti, Avenida, Galiza eta Eguzki tabernetan ere.

EUSKARA

Korrika-ren materiala salgai gaur Okendon, 18:00etatik aurrera

Martxoaren 19tik 29ra egingo da datorren urteko Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daiteke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Hala ere, gaur, ostirala, 18:00etan Okendon jarriko dute postua material guztiarekin, herritarrek ikusi eta erosteko aukera izan dezaten.

IKASTAROA

Ardo dastaketa kultur-etxean

Manuel Lekuona kultur-etxean ardo dastaketa ikastaroa antolatuko da. Honetan ardo zuria, ardo beltza eta ardo apardunak dastatzen ikasiko dute parte hartzaileek. Ikastaroa euskaraz edo gaztelaraz egiteko aukera izango da. Euskarazkoa abenduak 3, 10 eta 17an izango da eta gaztelarazkoa berriz, abenduak 4, 11 eta 18an. Bietan 18:30etatik 20:30erako ordutegian. Izena ematea kultur-etxean egin daiteke abenduaren 2a bitartean. Erroldatuentzat 27,70 euroko kostua izango du ikastaroak eta ez erroldatuentzat 48,70 euro.

EAJren Garapen Agentzia proposamena

Ezker abertzalea Buruntzaldean sortzen ari den garapen agentziaren kontra agertu ziren atzo EAJren eskualdeko ordezkariek. "EH Bilduk garapen agentzia horretatik kanpo" utzi dituen hiru herrietzat "proposamen bateratzaile bat" eratzeko konpromisoa hartu zuten Urnietako Batzokian egindako agerraldian.

"Aste honetan bertan eman diote oniritzia garapen agentziari Usurbilek, Astigarragak eta Hernanik. EH Bilduk gehiengo du herri horietan. Beste hiru herriak (Lasarte-Oria, Andoain eta Urnieta), ordea, ez daude koalizio abertzalearen esku, eta garapen agentzia horretatik kanpo geratuko liriteke, udalbatzarrek hala erabakiko dutelako", adierazi zuen Urnietako alkate Mikel Pagolak.

"Zentzurik ba ote dauka eskualdeko herrien erdiak bakarrik bilduko dituen agentzia bat sortzeak, kontuan hartuta hiru herri horietan Buruntzaldea osoko biztanleen erdiak ere ez direla bizi?", gai-



Ramon Aranzasti (Astigarraga), Estitxu Alkorta (Lasarte-Oria), Marijo Izagirre (Andoain), Mikel Pagola (Urnietako) Josune Urkola (Usurbil) eta Andoni Amonarraiz (Hernani).

neratu zuen Marijo Izagirrek.

EH Bilduren agentziatik kanpo geratuko liritekeen hiru herri begira, proposamen "bateratzaile eta parte-hartzaile" egiteko konpromisoa hartzen dutela esan zuten ordezkariek jeltzaleek.

Nabarmendu zuten ezker abertzaleak disein proposamena "legez kanpokoa" dela eta ez dituela "berme legal eta juridikoak" betetzen. Gainera, "sektarioa" eta "presazko proposamena" ere badela salatu zuten, etorkizunean proposa-

men "landuagoa" egiteko konpromisoa hartzearekin batera: "Parte-hartzailea izango da gure ekimena, eskualdeko ikuspegitik egingo dena; ez da alderdikieretan eroriko", azaldu zuen Pagolak.

Era berean, Buruntzaldeak bizi duen egoera ekonomikoari aurre egiteko euren proposamenera gehitu nahi duten kide guztientzat "ateak irekita" dituztela adierazi zuten EAJko ordezkariek: "EH Bilduk gure garapen agentziarekin bat egitea espero dugu".

Jantzi tradizionalen ikastaroko fruituak

Urri hasieran hasi zen ikastaroa, eta atzo bukatu; egindako jantziak erakutsi zituzten ikasleek

Jantzi tradizionalen ikastaroa atzo bukatu zen. Urri hasieratik aritu dira jantziak sortzen hamabi bat ikasle, ostegunero, Emakumeen Zentroan. Jone Artolak egin ditu irakasle lanak. Ikastaroa bukatzearekin batera, egindako lana erakutsi zuten hainbat ikasleek atzo, Emakumeen Zentroan bertan. Egindako lanak erakutsi ahala kide eta irakasleen lausengak jaso zituzten egileek, argazki mordo bat ateratzarekin batera. Ia bi hilabeteetako fruituak jaso eta erakutsi zituzten atzo jantzi tradizionalen ikastaroan aritu diren ikasleek.

TXINTXARRI

Hazia erein, ureztatu eta tentuz zaindu ostean, egindako lanaren fruituak jasotzeko ordua izan ohi da. Antzeko zerbait egin zuten atzo jantzi tradizionalen ikastaroko ikasleek: bi hilabetez jantziak egiten jardun ostean, egindako lana erakutsi zuten atzo arratsaldean, Emakumeen Zentroan. Bukatutzat eman zuten horrela ikastaro hori.

Urri hasieratik ostegunero bildu izan dira 12 bat ikasle Emakumeen Zentroan. Jone Artola izan dute irakasle. Ikasle bakoitzak etxetik ekarritako materialarekin, euren familia, lagunentzako... jantziak eta osagarriak egin dituzte.

Jantzi tradizionalak egiten ikasteaz gain, euskararen erabilera ere sustatu dute. Antolatzaileek nabarmendu dute "oso ona" izan dela esperientzia, eta datorren urtean errepikatzeko asmoa azaldu dute.

Titare talde iraunkorra

Esperientziarekin pozik gelditu eta datorren urtera arte itxaron nahi ez duenak izena eman dezake Titare taldean. Urtarrilean jarriko dira martxan, Jone Artolaren gidaritzapean baita ere. Ostegunetan izango dira saioak, arratsaldeko hiruretatik bostetara. Euskaraz aritzeaz gain, herriko taldeentzako (Kukuka, Ttakun...) zein ikasleek nahi dutenentzako jantziak sortzeko aukera izango dute.



Bi hilabetez egindako lanaren ostean, irudietan ikusi daitezke ikasleek egindako jantzi batzuk.

Jesus Zaballos PSEren alkategai

Alderdi sozialistako kideek eta 80 herritarrek babestuta, Jesus Zaballosek bere burua aurkeztu zuen datorren urteko hauteskundeetarako. Hasteko, asteartean Villa Mirentxura bertaratutako eskerrak eman eta Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Egunaren harira, "genero indarkeria" jasaten duten emakumeei elkartasuna adierazi zien, "ez zaudete bakarrik" esanez.

Herriaren "alternatiba"

Proiektu sozialistaren alde lan egiteko gogoia agertu zuen bere "printzipio, ideal eta sinismenak" ardatz. "Alderdi honetan sartu ginen guztiok gauzak aldatzeko asmoarekin sartu ginen, eta gauzak aldatzeari guk sozialismoa esaten diogu", jarraitu zuen Zaballosek.

"Zuen esku dago Lasarte-Oriaren etorkizuna, behar zaituztet", esan zion hautesle-goari. Horretarako maiatzeko udal-hauteskundeetan hauteskontziak "larrosaz" betetzeko eskaria egin zien, Bilduri aurre egin diezaiokeen "alternatiba erreala" bakarria sozialistena dela sinetsita.

Bilduren Gobernu hiru urte eta erdi "geldirik" egon dela salatu eta "inolako proiekturik" abian jarri ez izana



Jesus Zaballos astearteko aurkezpen ekitaldian.

gaitzetsi zuen. "Ez dugu babes ofizialeko etxebizitza ikusi, Okendoko garaje hutsak, asfaltatu gabeko kale zikinak eta haur-parke zaharkituak bai ordea; kale hezitzaileen zerbitzua bertan behera utzi dute eta Emakumeen Zentro Zibikoarekin gauza bera egiten saiatu dira", adierazi zuen Zaballosek. "Legealdia amaitzeko geratzen den urte erdian korrika eta presaka egingo dituzte azken uneko proiektuak helburu elektoralekin, ez gaitzabela engaina".

Bilduk herritarrak "zati" eta "ezker abertzaleko jendearentzat" gobernatu duela esan zuen PSE-EEko hautagaiak eta euren proposamena, kontrakoa, "arrakalak itxi" eta "guztien

elkarbizitza" sustatzea dela adierazi zuen: "2011ko udal-hauteskundeetan indar bozkatuena izan zen PSE-EE, baina Bildu, EAJ eta LOHPren proiektu gabeko gobernuak ordezkatu zuen herritarrek hautestontzietan erabaki zuten gehiengo sozialista".

Omenaldi txikia egin eta metafora bat osatze aldera ama ere izan zuen gogoan ordu laurden iraun zuen hitzaldian "ama bolillera dut, ehundaka hari ezberdin batzen ditu lan zoragarriak egiteko. Horixe bera egin nahi dut nik Lasarte-Oriarekin".

Iñaki Arriola Gipuzkoako PSE-EEren buruarekin emandako besarkadarekin amaitu zuen ekitaldia.

Osasun asteko ekintzak



ICAVI taldekoek eman zuten hitzaldia asteazkenean, hitzaldi aretoan.

Gaur bukatuko dira Lasarte-Oriako XXII. Osasun Jardunaldiak. Hitzaldiz, ekitaldiz eta tailerrez betetako astea izan da.

'Aulki hutsak' dolu eta itxaropenaren inguruko dokumentala eta mahai-ingurua eskaini zituen Bidegin elkar-teak, bertako kide Izaskun Andonegiren eskutik.

Asteartean adineko pertsonak izan ziren protagonista. Nagusien osasun eta autonomia galerei eta bizitza kalitatearen gainbeherak Osasun publikoan duen eraginari buruzko tailerra antolatu zuten, 'Erortzea tailerra' izenekoa.

ICAVI taldearen txanda izan zen asteazkenean. 'Bizitza osorako etxebizitza, nire gaitasunak aldatzen direlako nire etxea nola prestatu' hitzaldia eman zuten.

Menopausia izan zuten hizpide atzo. Emakumeen Zentroko sexologo Oscar Arandak 'Menopausia modu positiboan bizituz' hitzaldia eman zuen.

Astea behar bezala bukatzeko, 'Erlaxazio tailerra' izenekoaz gozatu ahalko dute herritarrek, arratsaldeko zazpietan, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Naiara Urkizu pilates irakasleak emango du tailer hori.

'Euskarak 365 egun' ekimena martxan

Euskaltzaleen Topaguneak kanpaina jarri du abian, euskararen erabilera sustatzeko

Euskararen Nazioarteko eguna izango da abenduaren 3a, eta egun horretan bakarrik ez, egunerokoan erabiltzearen garrantzia azpimarratu eta sustatu nahi du Topaguneak, martxan jarri duen #365egun kanpainaren bitartez. Lasarte-Oriako Ttakun KE-k ere bat egin du ekimenarekin eta Txintxarri aldizkariaren barnean datoren etxeetan jartzeko kartelaz gain, abenduaren 3an herriko txikientzako ekintzak prestatu ditu. Asmoa hauxe, euskara urteko egun eta esparru guztietan erabiltzearen beharraz kontzientziaztea, "euskaltzaleon auzotik euskararen herrira" jauzia emateko. Ttakunek Txintxarriekin batera jasoko duzuen kartela leiho eta balkoietan jartzeko gonbidapena luzatzen dizue.

TXINTXARRI

Administrazioan, umee-kin, gazteen artean, hezkuntzan, osasun arloan... Finean herrian euskara erabiltzeko deia eginez hainbat lelo zabaldu nahi ditu Topaguneak #365egun kanpainaren bidez.

"Euskaltzale guztien" ekimena izatea nahi dute, herri mailan euskalgintzaren eta gizartegintzaren alde lan egiten ari direnen "artikulaziorako" tresna.

Hori lortzeko, hiru oinarri finkatu dituzte: "Kalea, komunikazioa eta mezua". Euskaltzaleen konpromisoa indartu eta kalea komunitatearen eskaerez betetzea da asmoa, ahalik eta esparru zabalean.

Denera 37 herri eta eskualdetan egingo dute ekimena, iazko datua (32) gaindituta, zabaldu eta garrantzitsua izango dute aurrean ere euskarriek. Guztira 44.000 kartel eta 27.000 pegatina inprimatu eta zabalduko ditu Euskaltzaleen Topaguneak eta Lasarte-Oriako kaleetan ere presentzia izango dute Ttakuni esker.

Sare sozialetan ere protagonismoa izango du kanpainak #365egun traolaren bitartez eta "aipu hutsa" baino, "konpromisoa" lortzen

ahaleginduko da Topagunea. Gainera, www.365egun.eu webgunean argazki mosaiko erraldoia osatuko da jasotako argazki guztiekin. Ttakunetik herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Elkarlana ardatz

Euskal Herriko bestelako ekimenekin ere loturak lantzen ari da Topagunea: Euskaraz Bizi Nahi Dut-ekin, EHE-ekin, PuntuEus elkartearekin eta Eusko Ikaskuntzarekin, besteak beste.

Guztien artean "ikusgarritasuna" lortu eta "bikoizketak" ekiditea da asmoa, "epe luzera" emaitzak lortzeko euskalgintzaren alorrean.

Ekimena Lasarte-Orian

Ttakun Kultur Elkarreak herri mailan ere landu nahi du #365egun euskaraz ekimena. Horretarako, Txintxarriekin batera etxeetara iritsiko diren kartelekin.

"Zabalkunde masiboa" egin nahi du euskara elkarreak denda, taberna, etxebizitza eta eraikin publikoetan. Kartel zuri eta arrosak presentzia izango dute beraz herriko kaleetan eta aldizkariarekin datorren kartela balkoietan, edo leihoetan, leku ikusgarrietan jartzeko proposamena luzatu nahi diete lasarteoriarrei.



Adin guztietako jendeak egin du bat ekimenarekin eta herritarrei ere deia zabaldu die Ttakunek gauza bera egin dezaten.

Abenduak 3

Abenduaren 3a, asteazkenean izango da Euskararen eguna eta egun horretan ospatuko dute batez ere txikienek Euskararen Nazioarteko Eguna.

Ttakunen baitako ume eta gaztetxoek programetan, Gazteklubeko gaztetxoek esaterako 'Agurren txapelketa' egingo dute Manuel Lekunako areto nagusian 18:00etan hasita.

9 eta 12 urteko neska-mutikoek agur bereziena asmatu beharko dute epaimahaia harritu eta lehia irabazteko. Saria begiraleen agur berezia izango dela aurreratu dute sustatzaileek.

Amarango umeek berriz, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen laguna den Martin Bertsoren bisita izango dute Ludotekan 18:00etan.

Ekintza 4 eta 8 urte arteko haurrentzat izango da eta honekin saio polit batez gozatu dute. Bertsotan egiteko aukera izango dute besteak beste.

EUSKARAK 365 EGUN

euskaltzaleon auzotik
euskararen herrira

www.365egun.eu

Hauxe da etxetz etxe banatu den kartela.

EXPOSICIÓN
Plaza Oriamendi, 2
(Antiguo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TALLER
Ibaiondo, 4
semisotano 5-A
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Zure LEIHO berrientzat

SUBENTZIOA Irailetik aurrera...

Etorri eta informatuko zaitugu!

Tel: 943 37 78 68

tienda@ventanasalcar.com

www.ventanasalcar.com

www.facebook.com/VentanasAlcar

LABURRAK.-

Endika Gartzia herritarra bigarren Biriatur

Hiru lasarteoriatar izan ziren igandean Biriaturko mendi-duatloi gogor eta teknikoan lehiatzen. Endika Gartziak berak, Iñaki Letamendiak eta Amagoia Fernandez de Lezeak Txingudi bailarako parajeetan barrena osatu zuten proba. Duatloien ibilbidea honakoa: 6km korrika, 20 km mendi-bizikletaz eta 3 kilometro korrika berriro. Endika Gartziak bigarren egin zuen Julen Larruzaren atzetik. Podiuma Ander Perezek osatu zuen.



Gartziak 1:50:37ko denbora egin zuen, irabazlearengandik minutu erdira: "Aspaldiko partez podiumean berriro. Bigarren gogorra bezain polita izan den Biriaturko mendi-duatloian. Eskerrak eman behar dizkiot Aitor Asensio osteopari, nire pubalgia lesiotik

errekuperatzen lagundu didalako. Lizarrako mendi-duatloian ikusiko gara", adierazi zuen atleta lasarteoriatarrek.

Bestalde, Iñaki Letamendia 73. sailkatu zen 2:42:42 eginda. Amagoia Fernandez de Lezeak azkenik, ezin izan zuen lasterketa amaitu. Datorren astean jokatu da Euskal Herriko mendi duatloien ligako azken jardunaldia Lizarran, eta lasarteoriatarrek bertan izateko asmoa agertu dute.

Lautik lau Beltzaken errugbi taldeentzat

Jardunaldi gogoangarria izan zen pasa den asteburuko Zarautz-Beltzak taldearentzat. 14 urtez azpikoen mailan, Beltzak A taldeak Ordizia Bri irabazi egin zion eta herritarren B taldeak ere, Irun-Aletico menderatu zuen. Baina ez zen hori izan eguneko gauzarik politena. Lehiaketa hauetan, partida 35-0eko emaitzara ailegatzen bada, nogehiagoka eten eta aurretik doan taldea irabazle izendatzen dute (kasu honetan Beltzaken bi taldeak). Falta diren minutuak nahastuta jokatu zituzte, maila berdintsuko bi talde eginez. Horixe gertatu zen larunbatean Beltzaken bi neurketetan. Errugbia kirola baino gehiago delako.

Bestalde, Michelinek 16 urtez azpiko Babyauto ZRT Beltzakek 34-24 garaitu zuen Nafarroako La Unica. Berdinduta joan zen partidua azken minutuetara arte. Herritarrek azpitik egin zuten bigarren zati ia osoa, baina garaipenaren entsegua lortu zuten neurketaren hondarrea.

Azkenik, 18 urtez beherakoetan, ZRT Beltzakek Irun-Baztan garaitu zuen Euskal Ligako partidua. Herritarrek jokalarik gutxiagorekin ekin zioten partidari, lesioek eta konpromisoek herren utzi zuten taldea, baina lasarteoriatarren kemena nahikoa izan zen zelaiaren hiru laurdenaren jaun eta jabe egin eta garaipena eskuratzeko, 50-15. Seniorrek atsedena zuten.

Nahia Zudaire kirol egokituko igeriketa proban

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek Zarautzen lehiatu zuen igandean Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioak antolatutako "Denbora Hartze" frogetan. Txapelketa ez ofizial hau kirol egokituaren barruan Nahiaren kategoria zein izan daitekeen ikusteko baliagarria izan zen. 50 libre, 50 bizkar eta 25 libren aritu zen eta ziurrenik, Kirol Egokituko Espainiako Txapelketan izango da urtarrean.

MARATOIA.-

42,195 kilometro ilusio

Donostiako Maratoia egingo dute igandean 29 lasarteoriatarrek

Atletismoaren distantzia mitikoa da Maratoia. Iruapen-luzeko atleten giharrak eta birrikak proban jartzen dituen lasterketa. Herriko 29 lagun, tartean bi emakume izango dira Donostian. Batzuek lehenengo aldia dute, besteak zailduta daude dagoeneko 42 kilometroak egiten. Baina Maratoiak beti sortzen du halako lilura berezi bat. Sentimendu bat. Denengan.



Donostiako Maratoia egingo duen herritar talde bat, irribarretsu.

JON ALTUNA EGITEGI

Kristo aurreko 490. urtera egin behar da jauzi Maratoiaren jatorria ezagutzeko. Kondairaren arabera, Greziak Persia garaitu zuen Maratoiko guda latzean. Garaipenaren berri ahalik eta azkarren eman behar zioten Atenasi, eta Fidipidesen esku utzi zuten egiteko hori. Soldadu prestuak lasterka egin zituen Maraton eta Atenas artean dauden 40 bat kilometroak. Helmugara iritsi zenean, "irabazi dugu" esan eta hantxe erori zen ziplo.

Donostiako Maratoia

Ibilbide berria estreinatuko du aurten Donostiako Maratoiak. 9:00etan hasita, 21 kilometroko bi itzuli eman beharko dituzte parte-hartzaileek, azken urteotako hirurak baztertuta. Urumea ibaiaren bi aldeak zeharkatuko dituzte eta Igarako zonalde bakartua ez dute pasako. Espainiako eta Gipuzkoako txapelketa izango da Anoetan amaituko den proba, iaz bezala. Zirkuitua erabat laua da.

Esperientzia eta grina

Ramon Mendizabal, Anabel Eleno eta Asier Gorostegi dira maratoia egingo duten herritarretako hiru.

Ramon Mendizabalek hamargarren maratoia du, zortzi egin ditu asfaltoan eta bi mendian. Esperientzia badu halako lasterketan eta "zazpigarrenean" gozatu omen zuen lehen aldiz 42 kilometroez, beraz, "lasai" hartzeko aholkua eman die debutariak diren Asier Gorostegi eta Anabel Elenori.

Gorostegik lehen maratoia du, triatloietan espezialista den mutilak arnasa luzeko probara jauzia eman du eta "beldur pixka bat" badu ere, maratoi erdia 1:38an pasa eta giharrak gehiegi ez behartzen saiatuko da: "lagun eta gurasoekin hitz egin dut eta puntu estrategikoetan jarriko dira niri gelak emateko, ezinbestekoa da".

Anabel Eleno da, Mari Carmen Olasorekin batera, maratoia egingo duen bi emakume lasarteoriatarretako bat: "Bost Behobia eginak dauzkat. Beti ibili izan naiz atletismoan eta

Ostadarrekoekin entrenatzen dut. Ilusioz gainezka nago", adierazi du.

Hirurek gauza bat dute argi: "Biriketarik baino, hanketatik sufrituko dugu gehiago. Hamar kilometroren faltan horma famatua iristen denerako prest gaude, ea gozatzea lortzen dugun".

Entrenamendu luzeak

Horixe da Maratoi bat amaitzeko sekretua. Gorputzari 30 kilometroko tirada bat edo beste sartuta, distantzia luze-tara ohitzea eta zailtzea. Jakina, Santuenea, Txokoalde eta Plazaolako trenaren bideak begiak itxita ere egingo lituzkete herriko maratoilariek.

Zentzu horretan kritikaxko bat ere badute: "Ea noizko lotzen dituzten Lasarte-Oria eta Añorga bidegorriz. Sekulako askatasuna emango liguke Donostia aldera joateko".

Igandero 8:00etan geratzen dira entrenatzeko eta deia zabaldu diete herriko korrikalari guztiei anima daitezen.

Ordu gutxi falta dira. Xirimiria eman dute etzirako, 13 gradurekin. Zorte on denei.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 29

Eibarrena, Zizurkil 10:30ean

Danena Amaro - Ostadar SKT

Infantil I. maila,

7. jardunaldia.

Michelin, 10:30ean

Ostadar SKT - Internacional

Kadeteen I. maila,

11. jardunaldia.

Mallona, Bilbo 10:45ean

Santutxu - Ostadar SKT

Kadeteen Euskal Liga

12. jardunaldia.

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Zumaiaiko

Nesken Erregional maila,

10. jardunaldia.

Igartza, Beasain 12:30ean

Beasain - Ostadar SKT

Infantilen Ohorezko maila

9. jardunaldia.

Michelin, 13:45ean

Ostadar - Orioko

Infantil Txiki, Errendimendua

2. jardunaldia.

Michelin 15:30ean

Ostadar - Kostas B

Jubenil I. maila,

11. jardunaldia.

Usabal, Tolosa 15:30ean

Tolosa - Texas

Jubenil I. maila

11. jardunaldia.

Hondartzta, Hondarribia 16:00etan

Hondarribia - Ostadar SKT

Jubenilen Ohorezko maila

11. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Aurrera Ondarroa

Ohorezko Erregional maila

12. jardunaldia.

Berio, Donostia 19:30ean

Santo Tomas Lizeoa - Texas

I. Erregionala

10. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 28

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Urdaneta HK - Trumoi

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Reformas Lagunak - Indaux

Larunbata 30

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Txindoki - Izkiña

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Txoko - Also

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Bar El Punto - Viña del Mar

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Bar El Punto - Bar Buenetxea

ERRUGBIA

Azarook 30

Michelin, 10:30ean

Beltzak taldeko sub 10 eta sub 12 gaztetxoek Gipuzkoako Federazioko jardunaldia izango dute.

Asti, Zarautz 12:00ean

Zarautz/Beltzak - Crat A Coruña

Ohorezko B maila

Agenda

Larunbata 29, Manuel Lekuona 18:30ean



Munduko 8. miraria

Adimen urritasuna duten pertsonen eguna da abenduaren 3a. Hori ospatzeko, jaialdia antolatu du Gure Ametsa-Jalgune elkarteak. "Munduko 8. miraria" izateko prest ikusten dute euren burua eta horren inguruan ariko da jai. Honetan Semblante Rocierok, Sasoeta-Zumaburu eta Nahaste Borrasteko haur eta helduek parte hartuko dute besteak beste. Jaialdiko protagonistekin argazkiak ateratzeko aukera ere izango da 'Photocall' berezian.

Besteak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 28, 19:00etan

'Erlaxazio tailerra' egingo da Osasun Astearekin bukatzeko, yoga eta pilates irakaslea den Naiara Urkizuren eskutik.

VILLA MIRENTXUN

Larunbata 29 eta Igandea 30, 12:00etan

Islada Ezkutatuak taldeak antolatutako ibilbide historikoa. Ordu edo ordu eta erdiko ibilaldia izango da. Villa Mirentxutik Okendo plazara, San Pedro eliza ingurura, Brigitarren Komentura eta Hipodromoko zubira joango dira. Gune horiek Gerra Zibilean nolakoak ziren azalduko dute Islada Ezkutatuak taldeko kideek. Larunbatekoa euskaraz eta igandekoa gaztelaz izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 30, 17:00etan

'Guardianes de la galaxia' filma ikusteko aukera izango da haurren zinema atalean. Sarrera Interneten 3,18 euro eta egunean bertan erosita 3,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 30, 19:30ean

'El corredor del laberinto' filma helduen zinema atalean. Sarrera Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 28, 18:00etan

'Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna' egitarauaren baitan 'Belarrira kontatzeko ipuinak' emakumeen zentroko Makelur antzerki taldearen eskutik. Sarrera libre izango da gonbidapenarekin.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 27, 18:00etan

Kontukantoiarekin ipuin kontalaria saioa. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko

umei zuzenduta egongo da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

Musika

EL BAR DE MAU

Larunbata 29, 20:00etatik

Arrasate Konektion Big time sound system taldearen kontzertuak eta ondoren, Djak izango dira. Boogaloo ska jazz reggae soul rocksteady doinuak izango dira goizaldeko 3:30ak arte.

Bertsolaritza

ARRIESKALLETA ELKARTEA

Larunbata 28, 21:00etan

'Bertsoemotion 3D' bertso-afari berezia Unai Iturriaga eta Andoni Egaña bertsolariekin. Unai Muñoa herriko bertsolaria ariko da gai jartzaila lanetan. Afairako txartelak Jalgin eros daitezke 25 eurotan.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Azaroan zehar

Urriaren 18an ospatu zen Euskal Jaiko argazki erakusketa ikusgai izango da hilabete osoan zehar Jalgin. Etxarri argazki dendak osatutako bilduma da.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 9:00etatik 13:00etara.

Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

Danok Kideren jaiotza lehiaketa

Danok Kide elkarteak, aurten ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Hauek dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 cm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin gutun-azal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita eman behar da.

Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 19 eta 20a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 18:00etatik 20:00etara.

Abenduaren 28an saribanaketa egingo da.

Hemeroteka

Duela 1204 ale

1993ko azaroaren 26an Intsumisioaren gaia pillean zegoen. "Lurralde ezberdinetan intsumisioaren aurka egiten ari diren epaiketen ondorioz, mobilizazio ugari izan dira eta aurrerantzean ere izango dira. Gipuzkoan KEMI-MOC eta KAKITZAT talde antimilitaristak eta Jarrai, Hautsi... taldeek antolatutako mobilizapenetan parte hartu zuten arri da derriroreko zerbitzu militarren aurka. Objektore eta intsumisioak zaku berdinaren sartzen dituzte askotan gizeak, hauen berezitasunak argitzea du helburu erreportaia honetarako.

Egun, mugimendu antimilitarista oso handia da Euskal Herrian. Militarek aurka egiten duten mobilizazio ugari izan dira eta aurrerantzean ere izango dira. Gipuzkoan KEMI-MOC eta KAKITZAT talde antimilitaristak eta Jarrai, Hautsi... taldeek antolatutako mobilizapenetan parte hartu zuten arri da derriroreko zerbitzu militarren aurka. Objektore eta intsumisioak zaku berdinaren sartzen dituzte askotan gizeak, hauen berezitasunak argitzea du helburu erreportaia honetarako.

"Kontzientzia eragozlea da soldaduzka egin ordez, ordezko zerbitzu soziala egitea. Azken bide hau hartzeko zergatiak erlijiosoak, etikoak, moralak eta antzekoak izan behar dute. Kontzientzia eragozlea da soldaduzka egin ordez, ordezko zerbitzu soziala egitea. Azken bide hau hartzeko zergatiak erlijiosoak, etikoak, moralak eta antzekoak izan behar dute. (...) Automatikoki derriroreko zerbitzu militarrean joateari uko egiten diona intsumisioa da". Momentu hartan "Eusko Jaurlaritzaren inkestaren arabera euskal gazteen %80 zerbitzu militarren aurka dago". "Lasarte-Orian 35-36 intsumisio inguru dago gaur egun. Datorren urtean izango dira ziurrenik gazte hauek epaileen aurrean. Erreportajearen jasotzen zen intsumisioek laguntza handia jaso dute elkarte, alderdi eta orokorrean herritarren aldetik. Kem Moc eta Kakitzat talde antimilitaristek eta bestelako taldeek deitutako mobilizazioetan jende ugari hartu du parte".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



IZARRA

BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384

Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

